

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO IRAUNKORTASUNARI ETA KLIMARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA KRISI EKOLOGIKOARI AURRE EGITEKO TRESNA KOMUNITARIO IZATEARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko maiatzeko Lurralde Garapen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Elhuyar Zientzia aldizkariak eman du albistea. Klima-aldaketari buruzko BC3 ikerketa-zentroak baieztatu duenez, Europako hiriak atzean geratzen ari dira klima-aldaketari egokitzeko neurrietan. Hain zuzen, nazioarteko beste zentro batzuekin batera egindako ikerketan frogatu dute egokitzapen klimatikoko planen ia %70ek ez dutela funtsik. Ikertzaileen arabera, horrek nabarmen mugatzen du klima-aldaketak sortzen dituen arriskuei aurre egiteko eraginkortasuna. Horrez gain, huts egiten dute gizarte-ekitatean, ez baitituzte kontuan hartzen komunitate kalteberak.

Nature Climate Change aldizkarian argitaratu dute ikerketa. Berez, 2010az geroztik Europako 28 herrialdetako 885 hiritan egiten ari diren azterketen parte da. Europa, munduko beste eskualdeak baino bi aldiz azkarrago ari da berotzen. Horrenbestez, biztanleek gero eta arrisku handiagoa dute klima-aldaketaren ondorioak jasateko; adibidez, uholdeak edo suteak. Horri erantzuteko, ezinbestekoa da egokitzapen-planak ezartzea, ekintza zehatzekin, ikuspegi integratzaileekin, datuetan oinarrituta eta jarraipen-mekanismo argiekin.

Donostiak baditu horretarako bitartekoak. Cristina Enea Fundazioko Iraunkortasunaren eta Klimaren Behatokiak, adibidez, Donostiako Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena argitaratu ohi du. Fundazioaren webgunean jasotzen den bezala, “analisi,

hausnarketa, behaketa, prospekzio eta planifikazio estrategikorako tresna da Iraunkortasunaren Behatokia, eta bi funtzio berezi betetzen ditu: udalerriaren eta bere inguruaren egoeraren analisi zehatz eta zorrotza egitea, eta lurraldean lanean ari diren eragile ezberdinei erabaki-hartzea erraztuko dieten garrantzizko informazioa eta proposamen estrategikoak argitaratzea”.

Aipatu, txostena klima-aldaketaren aurkako borrokaren eta egokitzapenaren ikuspegitik planteatzen dela, eta bere barne-egitura lotu egiten da Donostiako Klima Aldaketaren aurkako Ekintza Planean (DSS Klima 2050) ezarritako jardun-eremuekin. Urteko txostena da, baina argitaratu den azkena 2022ko datuei buruzkoa da, eta 2025ean egonik, 2023ko datuei buruzko txostenak aspaldi behar zuen argitaratua. Are gehiago, 2024ko datuei buruzko txostenak ere aurkeztar egon beharko luke. Maiatzeko batzordeetan horri buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen baietz, 2024ko txostena aurki aurkeztuko zela. 2023ko datuei dagokien txostenaz, berriz, ez zuen ezer esan.

Donostiako Iraunkortasunari eta Klimari buruzko Urteko Txostena funtsezko tresna da hiriak aldaketa klimatikoaren edo krisi ekologikoaren erronkari behar bezala aurre egiteko; Behatokia beraren hitzak erabiliz, bere funtzioa “lurraldean lanean ari diren eragile ezberdinei erabaki-hartzea erraztuko dieten garrantzizko informazioa eta proposamen estrategikoak argitaratzea” delako, besteak beste.

Krisi ekologikoa nahiz klima aldaketaren ondorioak areagotzen ari diren honetan, beraz, ulertezina da aurkeztutako azken txostena 2022ko egoerari buruzkoa izatea.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behar bezalako erantzukizunez joka dezala, atzeratutako txostenak aurten argitaratuz eta hurrengo txostenak dagokien garaian argitaratzeko konpromisoa hartuz.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu



Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, behin 2023 eta 2024ko datuei dagozkien txostenak eskuragarri jarri ondoren, aipatu azterlanak Ingurumenaren Aholku Kontseiluan ez ezik, donostiar guztiei irekiak izango diren saioen bidez aurkeztu ditzala, Klima Larrialdi egoerari aurre egiteko herritarren ekarpena ziurtatze aldera.

Donostian, 2025eko maiatzaren 23an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia